

**Gastronomia**

# Esku-hartze kulturala ez, McDonald's

Atzo zabaldu zen Iruñean Nafarroan ireki den 'fast-food' delako ereduaren araberako lehen jatetxea.

Egun berean, dena Gabonen bezperan, Pamiela argialetxeak aurkeztu zuen 'Supazterreko errezetak' izeneko liburua.

Atzodanik jada dastatu daitezke Iruñean *Big Mac* edo *Happy Meal* zoragarriak Euskal Herrian zabaltzen den lehen *Free-stander* motako jatetxe batean, eta *drive-in* egin kotxeko leihatilatik entsalada eta izozkia zerbitzatzen duen *youth start* sistemaren bidez kontratatutako zerbitzariarekin, edo haurrak eraman nonbait *cool* den *Playplacera*. Hau da, atzodanik, Nafarroan badago jada —Iruñean, Leclerc hiperraren ondoan— *american life* horren ezinbesteko osagarria. Jada. Atzodanik —atzo zabaldu baitzen lehen McDonald's Nafarroan—, atzodanik diogu, europarragoak gara. Amerikarragoak. Modernoagoak.

Dena oso polita zegoen atzo —kristal garbitzaileak kristalak garbitzen, kamareroa poz-pezik lehen *Big Mac* zerbitza zezakeen aukera soilak txoraturik, langileak kanpoaldean azken ukituak ematen aparkalekuari...— zentro berriko arduradunak mundu osoan 25.000 jatetxe dituen enpresa erraldoiaren onurak kontatzen hasi zirenean. Hau da, 45 lanpostu sortu dituztela, aukera berria ekarriko duela Nafarroara, hiru urteren buruan inbertsioa berreskuratuko dela... Dena oso polita zen kazetari hura



KRISTINA BERIAIN

Iruñeko McDonald's jatetxeko zerbitzari bat, atzoko inaugurazioan.

galderak egiten hasi zen arte. «Ez zaizue iruditzen esku-hartze kulturala izan daitekeela ongi bazkaltzeagatik fama duen lurralde batera zuten janaria ekartzea?». Iruñeko zentroa paratzeko frankizia lortu duen enpresarioa eta McDonald'sko ordezkaria zur eta lur, baina ezetz, beste

aukera bat besterik ez zela. «Eta ez al da kotxeen industria lotsagarri bultzatzeko modua Mc Auto delako sistema hori?». Ezetz eta ezetz, McDonald'sek ez duela ezer bultzatzen eta... «Baina dena ingelesez jarrita, ez euskara eta gaztelania gutxi?». Kazetari batzuk urduri, haiek

bakarrik datu ekonomikoak jakin nahi zituztela, zenbaterako inbertsioak, alegia kronika lasaia, atsegina, eta gero Coca-Cola hartu arduradunekin eta aprobetxatu atzo gauerako egiten zuten gonbidapena lagunarekin joan eta *Big Mac* ederra hartzeko, nahikoa disgusto ematen

dituela lanbide honek orain gainera McDonald's eta bere politika kritikatzeko...

Kazetaria azkenean isilduko zela ematen zuen, baina oraindik galdetu zuen: «Eta zer egiten duzue botatzen dituzuen milaka tona paper eta kartoiarekin?». Ondo informatuta zegoen, gero.

Arduradunak esan zion orduan etortzeko egunen batean, erakutsiko ziola dena, gonbidatu ere bai... «Baita zera ere. Ez nauzu hemen ikusiko». Dena irrimarrez, dena duda izpirik gabe.

Atzo bertan, Iruñean, *Supazterreko tradizioak* izeneko liburua aurkeztu zen, ahanzteko bidean dauden hainbat errezeta biltzen dituena: porrusaldak, pipe-popilak, katalabroxak, taloak makarrakuekin, ajoarrieroak, mazapanak eta turroiak... Baztan-zopak, piperradak eta marmitakoak; indiabak, zuku-beltza eta perretxikoak, basafruituekin pattarrak eta bildotsa txilindronean. Hau da, kazetariak esan zuen bezala, «pazientziatziaz eta kariñoz eginiko janari motaren erdua, desgertzekotan dagoena».

Baietz McDonald's arrakastatsua gertatu.

**Alberto Barandiaran**  
IRUÑEA

## Gasteizko Gaua

M  
a  
r  
t  
x  
a



**EDAN-JANTEGIA BAR-TXOKO**

**Karta**

**ANBOTO**

Kutxilleria, 29  
Tf.: 945 25 00 93 - GASTEIZ

**LA JARANA**

Taberna

Kutxilleria kalea, 35  
GASTEIZ